

M-24 Udal eta foru hauteskundeak

Nafarroako Parlamentua

Barkos lehendakari, EH Bildu edo PSNrekin?

Geroa Baiko Uxue Barkos izango da Nafarroako Gobernuko lehen lehendakari abertzale eta euskalduna. Iritsi da aldaketa azkenean, baina ez dago garbi nola jantziko den.

| XABIER LETONA |



IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

Geroa Baik Uxue Barkosengan zentratu du kanpaina bete-betean eta uza oparoa jaso du: Gobernuko lehendakaritza.

HAINBESTE desiatutako aldaketa iritsi da Nafarroara, orain ikusteko dago berau nola gidatuko den eta zer aldatuko den eguneroan. Teorikoki gauza txikiak izango dira lehen urratsean, sinbolikoak, baina Nafarroako herritarren pluraltasuna islatzeko garrantzi handikoak. Egiazko Nafarroaren argazki zuzenagoa eskainiko du egoera berriak.

UPNk zartako itzela hartu du, baina lurzoru oso fidela du oraindik. Zartakoa, funtsean, Nafarroako Gobernu eta Iruñeko Udala galdu dituelako. Baina gainera, Nafarroako udal garrantzitsuenetan ere aldaketa emango da eta horietako batzuk galdu egingo ditu UPNk. Tuter, Tafalla, Lizarra, Barañain, Burlata, Antsoain eta Zizur Nagusia izango dira aldaketa ezagutuko duten horietako batzuk.



Nafarroa

BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2015	2011
UPN	91.239	111.474
Geroa Bai	53.034	49.768*
EH Bildu	47.843	42.916*
Podemos	45.848	-
PSN	44.916	51.238
PP	13.080	23.551
Izquierda-Ezkerra	12.985	18.457
Ciudadanos	9.826	-

*2011n NaBai aurkeztu zen, barnean Aralar zuela. 2015ean Aralar EH Bilduren barruan egon da.

Abstentzioa	%28,6	%32,6
-------------	-------	-------

LEGE BILTZARRAREN
OSAKETA

Irabazlerik izatekotan Nafarroan aldaketa bera da, PSNk ezin sostengatu izatea UPN-ren beste gobernu bat. Irabazleen blokean Geroa Bai eta EH Bilduren lehiak Uxue Barkosen koalizioaren alde egin du, 9 vs 8 parlamentario eta 5.000 boto gehiagorekin. Podemos indar handiz sartu da Legebiltzarrean, ez akaso beraiek espero bezain indartsu, baina edozein kasutan arrakasta itzelarekin. Lehen kolpean halakorik lortzeak ez du aurrekaririk azken 30 urteetan Nafarroako politikan. Gehiago kostako zaie barne kohesioari eustea. Ezkerra da blokeko txikiena eta, Podemos eszenatokian izanda, jaitsi arren duintasunez eutsi dio egoerari bi parlamentariorekin.

Galtzaileen blokean inork ez dio ondo eutsi, denek galdu dute asko, bai boterean eta baita bototan ere. UPNk hartu du zartako handiena, PSNk bi eserleku eta giltza galdu ditu, eta foru hauteskundeetan inoizko emaitza txarrenak atera ditu; eta hala ere, Maria Chivitek emaitza duinak atera dituztela adierazi du. UPNren makulu lanean ibili izanak, gutxiagorako aukera ematen zion. Beheranzko joerak hor ote du muga? Orain arte bezala jarraituz gero bai, baina hurrengo legealdiko jardunak esango du. PPK egundoko zartakoa hartu du, Legebiltzarrean erdira jaitsiz eta Iruñeko Udaletik desagertuz. Eta Ciudadanos, Legebiltzarrean sartzetik gertu ibili bada ere, aurreikuspenetatik oso urruti ibili da.

Kudeaketa gaitzeko gobernuak

Hori da aldaketari buruz ezagutzen den gauza bakarra, Uxue Barkos izango dela Nafarroako Gobernuko hurrengo lehenda-

karia, lehen lehendakari abertzale eta euskalduna. Horrek berak bakarrik ematen du aldatetaren neurria. Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Ezkerraren artean 26 eserleku biltzen dituzte, gehiengo osoa, eta badirudi bloke horren inguruan eratuko dela gobernu, nahiz eta ez dagoen argi nola.

Baina bada beste aukera bat ere, Geroa Bai, Podemos, PSN eta Ezkerran oinarritutako gobernu. Ez luke gehiengo osorik —25 eserleku— baina gobernu egonkorerrako aukera bai, hortik kanpo gertatzen direnak UPN eta EH Bildu nekez jar daitezkeelako ados gauza askotan. Geroa Bai izan dezake halako tentatidirik, horrek oraindik zentralitate handiagoa emango liokeelako eta Nafarroa hobeto ordezkari dezakeelako. Askoren beldurra uxatzea lortu du Barkosen kanpaina eta hori bera izan daiteke gobernu eraketarako beste gakoetako bat. Baina hori guztia gobernu programen gainean hitz egin beharko da eta alde horretatik Podemosek antzekotasun handiagoak izan ditzake EH Bildurekin PSN eta Geroa Bai-ekin baino.

Gobernua edozelakoa izanda ere, kudeaketa gaitzekoa izango da eta ez bakarrik bere pluraltasunagatik, baita ere aurrekontu aldetik gaur egun edozein gobernu dabilelako estu. Horrez gain, orain artekoaren kontrara, Madrilek ez dio batere langunduko eta bai, aldiz, zangotrabatu. Besterik gabe, hor daude oraindik dantzan Volkswageneko BEZaren 1.500 milioi euroak.

Baina horiek bihar-etzikoak dira, orain urteetan baztertuta izan den Nafarroa aldaketa ospatzen ari da oraindik. ■

Bada beste aukera bat: Geroa Bai, Podemos, PSN eta Ezkerran oinarritutako gobernu, gutxiengoan baina 25 eserlekurekin